



MP/ig

**FA-IOH-059/20**  
**11-OH**

## **FORU AGINDUA - ORDEN FORAL**

Donostia, 2020ko maiatzaren 25a  
San Sebastián, a 25 de mayo de 2020

Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuak programa berri bat du, lurraldeko aforalekuak berritzeko.

Sare horren bitartez, Gipuzkoako ibaien emariak kontrolatzen dira, eta hainbat datu ere erregistratzen dira, hala nola uren kalitateari buruzkoak eta plubiometriari buruzkoak. Informazio hori funtsezkoa da, ingurunea ondo ezagutzeko, eta muturreko egoerak kudeatzeko, hala nola uholdeak, lehorteak eta kutsadura gertakariak. Aforaleku batzuk duela 30 urte baino gehiago eraiki ziren, eta berrikuspen integrala eskatzen dute, honako alderdi hauek kontuan hartuta: ekipoak berritzea, azpiegiturak birgaitzea, ibilgailuak sartzeko behar berriak, egiturak baloratzea eta egokitzea arrainak igarotzeko iragazkorrak izan daitezen, etab. Era berean, aforaleku berriak eraikitzea eta kontrol eta aginte postu zentralizatu bat sortzea ere aurreikusten da.

Helburu horrekin, Ereñotzuko (Hernani) aforalekua berritzeko proiektua dago. Aforaleku horretan, Urumea ibaiaren emariak kontrolatzen dira, eta uren kalitate parametroen jarraipena ere egiten da.

Proiektu horren bidez aforalekuaren etxola berritzea aurreikusten da, bai fabrikako obraren akaberari dagokionez, bai kalteak konpontzeari eta udal-saretik edateko uraren hartune bat egiteari dagokionez. Tornu mekanikoaren euskarri egiturak egokitzea ere aurreikusten da, inoiz prestazio hobeko neurketa ekipo berri bat jarriko balitz ere.

Ibairako sarbideak eta segurtasun elementuak ere hobetuko dira, hala eskatzen duten lan eremuetan.

El presupuesto de la Dirección General de Obras Hidráulicas cuenta con un programa de nueva creación cuya finalidad es la renovación de las Estaciones de Aforo del Territorio.

Mediante esta Red se controlan los caudales circulantes por los ríos de Gipuzkoa, y también se registran datos de calidad de aguas y de pluviometría. Esta información es fundamental de cara a tener un buen conocimiento del medio y a la gestión de situaciones extremas, bien de avenidas o sequías, o bien de episodios de contaminación. Algunas estaciones de aforo fueron construidas hace más de 30 años, y exigen una revisión integral que contemple aspectos tales como la renovación de equipos, rehabilitación de infraestructuras, nuevas necesidades de acceso rodado, valoración y adaptación de sus estructuras para que sean permeables al paso de peces, etc. Del mismo modo, también se contempla la construcción de nuevas estaciones de aforo y la creación de un puesto centralizado de control y mando.

Con este fin, se cuenta con el proyecto de Renovación de la Estación de Aforos de Ereñotzu (Hernani), en la cual se controlan los caudales circulantes del río Urumea, y también se hace un seguimiento de los parámetros de calidad de las aguas.

Mediante este proyecto se prevé renovar la caseta de la estación de aforos, tanto en lo relativo a aspectos de acabado de la obra de fábrica, como al arreglo de desperfectos y a la realización de una acometida de agua potable desde la red municipal. También se prevé adecuar las estructuras de soporte del torno mecánico en previsión de la colocación de un nuevo equipo de medida de mejores prestaciones.

También se mejorarán los accesos al río y los elementos de seguridad de aquellas zonas de trabajo que así lo requieran.



Ondorioz, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, xedatutakoari jarraituz, proiektua onartzen da, baita lanak kontratatzeko espedientea ere, lege horren 159. artikulua araututako prozedura ireki sinplifikatuaren bidez.

Exekutatzeko epea 4 hilabetekoa, aurrekontua 128.135,96 eurokoa (gehi BEZa), eta kontratuaren balio zenbatetsia 148.135,96 euro, izan ere, kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikularekin lotura duen 101.2c) artikulua, kontratua aldatzeko aukera aztertu da, exekuzio aurrekontuaren 20.000,00 eurokoa gehienez ere.

Dagokion kontratazio espedienteak izapidetu da lanak gauzatzeko. Espedienteak jasotzen ditu proiektuaren zuinketa, kontratua gauzatzeko bete beharreko baldintza administratibo berezien agiria eta gainerako derrigorrezko dokumentuak.

Aurreko guztiaren arabera, eta xedapen hauek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz: 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa, 40.5 a) artikulua; eta 22/2016 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, foru diputatu honek,

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Onartzea **EREÑOTZUKO (HERNANI) AFORALEKUA BERRITZEKO** proiektuaren obrak (2020/21-RR-LS) gauzatzeko kontratazio espedienteak, baldintza administratibo berezien agiria eta ezaugarri teknikoena (obra-proiektua) barneratzen dituen, zeinaren lizitazio aurrekontua 128.135,96 eurokoa den, gehi gaur egun ezarri behar den BEZari (% 21) dagozkion 26.908,55 euro (guztira 155.044,51 euro, BEZa barne); lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa da (4).

**Bigarren.-** Abian jartzea kontratua esleitzeko prozedura ireki erraztua.

**Hirugarren.-** Kontratazio honi dagokion 155.044,51 euroko gastua baimentzea; zenbateko horretan obra proiektua gauzatzeko zenbateko osoa eta dagokion BEZa sartzen da, ondorengo aurrekontuko kontu sailen kargura:

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se procede a la aprobación del correspondiente expediente de contratación de las obras mediante procedimiento abierto simplificado regulado en el artículo 159 de dicha Ley.

El plazo de ejecución es de 4 meses, y su presupuesto de ejecución asciende a 128.135,96 € más IVA, siendo el valor estimado del contrato de 148.135,96 euros, toda vez que a los efectos del artículo 101-2c) en relación con el artículo 204 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se ha estimado una posibilidad de modificación del contrato por un importe máximo de hasta 20.000,00 euros.

Para la ejecución de las obras se ha instruido el correspondiente expediente de contratación, que comprende el replanteo del proyecto, el pliego de cláusulas administrativas particulares a las que habrá de ajustarse la ejecución del contrato y demás documentos preceptivos.

En virtud de cuanto antecede, este Diputado Foral, en uso de las facultades conferidas por el artículo 40.5 a) Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

## RESUELVE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de las **Obras del Proyecto de RENOVACIÓN DE LA ESTACIÓN DE AFOROS DE EREÑOTZU (HERNANI) (2020/21-RR-LS)** que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas (proyecto de obras), cuyo presupuesto de licitación asciende a 128.135,96 € más el IVA correspondiente con arreglo al tipo actualmente aplicable (21%) de 26.908,55 euros, total 155.044,51 euros, y con un plazo de ejecución de obra de cuatro meses (4).

**Segundo.-** Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado.

**Tercero.-** Autorizar el gasto correspondiente a dicha contratación por un importe de 155.044,51 euros que comprende el importe total de la ejecución del proyecto de obra y el IVA correspondiente con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:



1.1020.230.612.01.01.2020 : 140.935,24 euros  
5.1020.230.612.01.01.2021 : 14.109,27 euros

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita .

Hala ere partikularrek, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

1.1020.230.612.01.01.2020 : 140.935,24 euros  
5.1020.230.612.01.01.2021 : 14.109,27 euros

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**INGURUMENEO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUAK,  
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra



